


ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko azaroak 22 · 1333 zenbakia

PANTAILAK

BESTE BEGIRADA BATETIK



URRATEGI

INTERIORISMO
barne diseinua

dena
sukaldean
hasten da

dica fama
SUKALDEAK SOFAK



Supermerkatuak

 **EROSKI** center

zurekin

Kaixo!
Zure EROSKI Center
Bidebarrieta berria
irekiko dugu



Lortu **opari*** hau



*10 euro baino gehiagoko erosketengatik doan eta eskuragarri dauden 3000 aleak emaitu arte.

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Altxau Burua Eibar taldea aurkeztu dute. Eibarko eskola ezberdinetako guraso talde batek bultzatu duen ekimena da eta teknologiaren erabilera arduratsua eta osasuntsua sustatzea du helburu. Oihane Sanz, Naiara Sarasketa, Sorkunde Ecenarro eta Eider Mugicak taldearen jatorria, helburuak eta egingo dituzten ekintzak kontatu dizkigute.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

**Lantokietan aske izateko, hemen erabaki!!!**

Lantokietako indarkeria matxista ezkutuan dagoen errealtate da: lanik gabe geratzeko mehatxua beti dago horren atzean, eta, beraz, indarkeria ez da behar bezala salatzen edo adierazten. Mehatxuak eta zigorrak askotarikoak dira: kaleratzeak, ordutegi-aldaketak, kontziliazio-neurririk ez onartzea, lanpostuz inoiz ez aldatzea, lekualdatzeak, lana edukiz hustea, emakumeen lana gutxiestea*... Indarkeria matxista neurri eta aurpegi desberdinetako zigorren sistema oso bat da; sistema heteropatriarkal kapitalistaren egiturazkoa eta tresna, emakumeak menpean edukitzeko*.

Lan-munduan gertatzen den indarkeriatzat hartzen da sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena edo sexu-orientazioagatiko, identitateagatiko edo genero-adierazpenagatiko jazarpena, hau da, kultura patriarkalaren biziraupen-mekanismoek hartzen dituzten formak.

- Azken urtean, 22.000 emakume* inguruk jasan dute sexu-jazarpena lan-esparruan, Emakunde argitaratutako Emakumeen aurkako indarkeriak EAEn duen eraginari buruzko datuak inkestako datuen arabera (kasu batzuetan lankideenak, beste batzuetan nagusiarenak).

- Sexu-jazarpena jasan duten 5 emakumetik* batek lan-eremuan jasan du. Hala ere, horietako askok (%72,4) ez dute enpresan salatu, ondorioen beldur direlako.

Eta non daude erakundeak egoera horren aurrean? Gertatzen den indarkeria hori agerian ez jartzea, tresna eraginkorrik ez jartzea, indarkeria hori ezkutatzea da. Izan ere, ez dago datu horiei buruzko erregistrorik, ez zaie jarraipenik egiten, ez dira agertzen indarkeria matxistari buruzko inkesta orokorretan...

Enpresek, administrazioak eta lan-ikuskaritzak ez dute errealtate horri heltzeko borondaterik eta jarrerarik. Datuak argiak dira: ez dago mekanismo edo tresna eraginkorrik egoera horiek salatzeko.

Erakundeei, eta, zehazki, lan-ikuskaritzari, indarkeria matxistari aurre egiteko politika eraginkorrak garatzea eskatzen die LABek. Esaten dugu jarrera, uste eta indarkeria matxista guztiei aurre egin nahi diegula lantokietan aske izan nahi dugula aldarrikatzen dugunean, eta azpimarratu nahi dugu borroka honetan sindikalismotik fronte guztietan jarraituko dugula.

LAB sindikatua

Baietz lortu!

Lehenengo eta behin, azken ...eta kitto! Aldizkarian eskutitzen atalean esandakoak eskertu nahi ditugu. Ez da ohikoa eta guretzat horixe da jaso dezakegun aitortzarik garrantzitsuena, hauspoa eta indarra ematen digu. Mila esker, Marilo!

Horri tiraka, hausnarketatxo hau partekatu nahiko genuke irakurle guztioekin. AEKren sorreratik geure lan nagusia herritarrei euskara ikasten laguntzea izanda ere, argi daukagu, jakiteak gutxirako balio duela erabiltzeko aukerarik ez badago. Horregatik, garrantzitsua da euskaraz jarduteko lekuak berreskuratzea, izan Gaztainerre, Euskararen Eguna, Korrika, Euskaraldia...

Garrantzitsuak eta beharrezkoak badira ere, eguneroko erabilera da transmisioari zentzua ematen dion ekintza. Eta horretarako, oso oinarri ona daukagu Eibarren: %73 euskaldunak edo ia euskaldunak baikara! Ordea, azken datuen arabera, erabilerak 2 puntu egin du behera, eta %13an dago.

Badaude antzeko egoera irauli duten udalerrriak, adibidez, Tolosako kasua: 1985ean %29k euskaraz egiten zuen eta orain %52k euskaraz egiten du. Beraz, badugu "zer kopiatu eta hobetu". Gurean ere, hori egiteko gai garela garbi dugu, eta badago aukera euskarak galdutako espazioa berreskuratzeko. Horretarako, instituzio eta eragileon artean hizkuntz plangintza eraginkorra garatu eta praktikan jartzeko unea da.

AEK euskaltegia

(1)<https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20241111/tolosako-miraria-eta-erdaraz-ez-zekien-alkatearen-emaztea>

DATORREN ASTEKO ALEA EGUENEAN

Sanandresak direla eta, eguna zapatuan jausten denez eta bezperatik ekitaldiak izango direla kontuan hartuta, datorren asteke alea egun bat lehenago kaleratuko dugu. Hurrengo alerako edozein berri duzuela (izan zorion-tarterako, eskutitzetarako, agendarako...) martitzenerako igorri beharko diguzue, eguazten eguerdian inprentara bidaliko baitugu alea. Barkatu eragozpenak.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PASARIA EMON, HARTU → Jipioia eman, hartu. "Bakarrik geratu zan lauren aurrian eta pasara edarra hartu eban". Lehiaren batean, erraz irabazi. "Gaur azkoittirrerri pasara gogorra emon detse Elgoibarko pelotalekuan".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 22
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ZAPATUA 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 25
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 26
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUAZTENA 27
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 28
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 29
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Angelita Oiarzabal Arana.**
95 urte. 2024-11-13.
- **Carmen Setien Cano.**
99 urte. 2024-11-14.
- **Amada Horcajada Alcocer.**
88 urte. 2024-11-15.
- **Jose Fernandez Seguin.**
75 urte. 2024-11-19.
- **Itziar Antxia Irazola.**
57 urte. 2024-11-19.
- **Julita Sologaitua Ubera.**
94 urte. 2024-11-19.
- **Andres Zuloaga Ulanga**
57 urte. 2024-11-20.



Abenduaren hasieran zabalduko dute berriz ere Unbe kirolguneko taberna

Lizitazio-prozesua amaituta, Eibarko Udalak Unbeko tabernaren emakida esleitu du. Emakidadunak abenduaren hasieran hartuko du bere gain tabernaren kudeaketa. Kontratua, momentuz, bi urterako ezarri da. Lizitazio-fasean ostalaritza sektoreko hainbat ekintzailereren eta enpresaren proposamenak jaso dituzte. Azaldu dutenez, “kirol-instalazioetako erabiltzaileentzat eta Unbeko jolas-guneko bisitarientzat fun-

tsezkoa den zerbitzu bati jarraipena emateko helburuz egin da esleipena”. Kontratuan ezarritako baldintzei jarraituta, hau izango da ordutegia: martitzenetik barixakurara, 17:00etatik 21:00etara, eta asteburuetan 10:00etatik 20:00etara. Diotenez, “horrela ziurtatuta geratzen da jende gehien dagoen uneetan zerbitzua eskainiko dela. Espazioa kudeatzeko, klausulapleguan zehaztutako baldintzak bete beharko dira”.

Ospitaleko pailazoei laguntzeko egutegia salgai dago Eibarren, 10 eurotan

Algaraklown ospitaleko pailazoei 2025erako egutegia kaleratu dute. Bertan argazki koloretsuak daude, eta oso ondo irudikatzen dute irabazi asmorik gabeko elkarte honek gaixoak animatzeko egiten duen lana. 10 euro balio du eta Eibarren ...eta kitto! Euskara Elkarteak, La Salle ikastetxean eta Untzagako dorre azpiko bazarrean erosi daiteke.



Juan Antonio Mogealeko ikasleek ia 300 zuhaitz landatu dituzte Izua inguruan

Ia 300 zuhaitz landatu dituzte ikastetxe horretako 5. mailako ikasleek Urkoren magalean, Izua inguruan. Udaleko Ingurumen Saitetik baso autoktonoa berreskuratzeko Pagaegikorta proiektua aurrera eramaten ari dira inguru horretan, eta zuhaitzak landatze-za gonbidatu dituzte ikastetxeak. Mogeletik azaldu digutenez, “ikasleek bertako espezieak landatu dituzte. Hiruzpalau laguneko azpibaldeak osatu eta ia hirurehun

zuhaitz (gorostiak, haritzak, geziondoak, elorri zuriak...) landatu dituzte. Ezkurak ereiteko tailerra ere egin dute. Erein dituzten ezkur horiek ikastetxean zainduko dituzte, etorkizunean Pagaegikortako lursail horretan landatzeko”. Ekimenak asteburu honetarako Baso Biziak-ek antolatutako zuhaitz-landaketan parte hartzera animatu ditu gazteak, eta gure basoak ugaritzeko lanean jarraituko dutela diote.



Alberto de la Hoz izango da EAJ-PNV udal taldeko bozeramaile berria

Barne antolakuntza prozesu baten ondoren, Eibarko Uri Buru Batzarrak Alberto de la Hoz Gorriti izendatu du EAJ-PNV udal taldeko bozeramaile. De la Hozek 43 urte ditu eta Enpresa Kudeaketan lizentziatua da. Industria arloan ia 20 urtetako esperientzia dauka, erantzukizun karguetan. Eibarko Udalean zinegotzia da 2019az geroztik eta, urte hauetan, Hirigintzako, Obretako eta Garapen Ekonomikoko batzordeetako kidea izan da. Agintaldi honetan,

Ogasuna, Gai Instituzionalak eta Mugikortasuna eta Trafiko batzordeetan dago.

EAJ-PNVren Udal taldeko bozeramaile berria izendatzearekin batera, aurreko hilean kargua laga zuten Josu Mendicutte eta Amaia Albizuren tokiak nortzuk beteko dituzten eman dute ezagutzera: Aiora Arrieta Arreitunandiak eta Eva Juez Garmendiak azaroaren 28ko bilkuran jasoko dituzte euren kredentzialak, EAJ-PNV udal taldeko zinegotzi berriak izateko.

Mercedes Kareaga Beka eskatzeko epea San Andres egunean amaituko da

Azaroaren 30ean amaituko da Mercedes Kareaga Bekarako eskaerak aurkezteko epea. “Instrukzio Publikoa Eibarren (1880-1936). Eibarko maistrak” da aurtengo edizioaren ikergaia. Oinarri guztiak eta eskaera-orriak udalaren webgunean daude eskuragarri.



Ostalaritzarako enplegu programa berria ipini du martxan Udalak

Eibarko Udalak, Edukeibar Eibarko oinarriko lanbide-heziketako zentroa kudeatzen duen enpresarekin lankidetzan, ostalaritzarako enplegu programa berria jarri du martxan. Programak prestakuntza teoriko eta praktikoko 120 ordu eskaintzen ditu, enpresetan praktikak egiteko aukerarekin (40 ordu). Azaldu dutenez, “parte-hartzaileen enplegarritasuna hobetzeaz gain, ostalaritzako sektorean dagoen premia bati ere erantzuten dio programak”. Formakuntza urriaren 28an hasi zen, Azitaingo Oinarriko Lanbide Heziketako Zentroan, eta herriko 15 langabek dihardute bertan ikasten. Aurreko edizioan parte hartu zutenen erdiak lana aurkitu zuen.

1954. urtekoen bazkarira joan zirentzat loteria

Urriaren 5ean 1954ko kintoen bazkarira bertaratu ziren guztiei honako hau jakinarazi nahi diete antolatzaileek: soberan geratu zen diruarekin Gabonetako loteria erosi dutela. Hogei dezimo erosi dituzte guztira: hamar dezimo 89.103 zenbakiarekin jokatzeko, eta beste hamar dezimo 37.081 zenbakiarekin jokatzeko. Abenduaren 22an egingo den loteriaren zozketarako zortea opa diete.



Lehen sei hilabeteetan 13.280 kilo hondakin bildu dituzte eskualdeko arrandegietan

Arrain hondakinak (sandach izenekoak) biltzeko zerbitzua maiatzean abiatu zutenetik, 13.280 kilo arrain hondakin jaso dituzte, Debabarreneko Mankomunitateak emandako datuen arabera. Hori dela eta, arrain hondakinak Eibarko Garbiguneko hozkailura eramaten ari diren arrandegi guztien jarrera eskertu nahi dute Mankomunitatetik. Izan ere, arrandegien inplikazioari esker ekimena arrakastatsua izaten ari dela nabarmendu dute.



Errigorako zozketaren irabazleek jaso dituzte produktuz beteriko otarrak

Errigorako produktuz (olioa, ardoa, patxarana, gozoak, kontserbak...) beteriko bi otar zozketatu ditugu eta irabazleek jaso dute saria. Alberto Arrillaga eta Nerea Salaberria izan dira zortedunak eta aste honetan etorri dira...eta kitto! elkartearen lokaletara sari bila. Orain, produktuez gozatzea besterik ez zaie geratzen. On egin!

Erdialdea oinezkoentzat jartzeko ordutegia aurreratuko dute datozen bi asteburuetan

San Andres egunaren inguruan antolatu diren jarduerak direla eta, asteburu honetan eta hurrengoan erdialdea oinezkoentzat jartzeko ordutegia aurreratuko dela jakinarazi dute Udaltzaingotik. Hauek dira egingo dituzten aldaketak: Txistorraren Eguna dela eta, bihar 12:00etara aurreratu dute oinezkoentzako eremua ezartzea; eta San Andres egunaren bezperan, erdialdea oinezkoentzat izango da 18:00etatik aurrera, eta hala jarraituko du domeka gauerdira arte.



Genozidioaren kontrako manifestazioa egingo da

Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek manifestazioa antolatu dute domekarako, *Stop genocidio Palestina Libano* goiburuari jarraituta. Untzagatik hasiko da, 12:00etan, eta herritar guztiak sarraskiaren kontra mobilizatzerara deitu dituzte.

Merkataritza Gala 2024

...eta kitto! Euskara Elkartek "Euskaraz Primeran!" kanpainaren barruan lehenengoz antolatutako duen ekitaldia egin zen aurreko astean Coliseo antzokian. Bertan, euskararen erabilera handitzeko herriko hainbat establezimenduk hartutako konpromisoak betetzea saritu nahi izan dute, eta horretarako urrezko eta zilarrezko diplomak eta garaikurrak banatu zizkieten, bakoitzaren konpromiso-mailaren arabera. Zorionak denoi!



Gala osoaren bideoa
YouTubean ikusgai



Argazkiak
gure webgunean



**Euskaraz
primeran!**

MERKATARITZA GALA 2024

...eta kitto!



10 MERKATARITZA GALA



Azpiri saneamenduak eta Azpiri jostundegia.



Burbujas y Mas eta Coffe Bar residentzia.



Helmet House eta Guby jantzidenda.



Ikusi Eibar jantzidenda.



Mugika harategia, Losada oinetakoan konponketa, eta Otegui harategia.



Lakuesta optika eta Tintalur.



Comercial Zabala, Beittu optika, Ateun harategia eta Askasibar kirolak.



Elortza botika, Dirdai bitxidenda eta EL Tio Palancas gozokiak.



Gigil osagarriak.



Hartara artisautza, I love 10 euro eta Guridi taberna.



Irritsa modak eta Ibarkurutze frutadenda.



Izpizua botika, Izane dekorazioa eta Izadi lora-denda.



Kopiña jantxidenda, Lahidalga oinetakoak, Klaus dekorazioa eta Kili-klik argazkiak.



Oinberri oinetakoak, Plazaola optika, Otaola deskantsu denda eta Muma jantxidenda.



Sarasketa ortopedia, Retegi oinetakoak, Txukuna mertzeria eta Twins jantxidenda.



Urrategi barne-dekorazioa, Umea modak eta Zorionak ludoteka.



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / laser teknologia

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
770 kolegiatu duela.

- FISIOTERAPIA
- KIBOE, LENDIAK
- Puztekin orokorreko tratamendua
- K-Strokek + REHABILITAZIOA

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**
ARRAZQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane.mendia@hotmail.com

Esku onetan egotearen ziurtasuna,
eta zure gaitasunaren gain,
Hortz-Eder-ek zurekin batera.



bista eder
clínica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82 bista eder, 19
www.bistaeder.es

IRAZABAL
clínica dental

**Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tlnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

Dra. Laura Martínez **Dr. Alejandro Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaelbar.com

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Terrain Calleson 19-1. esk. Eibar
943 20 72 17 | 680 42 28 08
amaia@amaiaesnaolaodontologia.com

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 843-702896

EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
1978/07/16

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º l. Eibar
Tel.: 943 70 23 85



943-206776



osasun gida

Medikuntza Estetikoak



abontza
clínica estética

Medikuntza	Kirurgia
- Dermatologia estetikoak	- Berezak, belarrik...
- Azuepeja gaitzetza	- Liposukzioak
- Barizak	- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - Ibaeta 943 206 044

Okulistak



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikak

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 20413

Plaza Barria 2, 2º. Tel: 943 201 944
www.clinicarecalde.com



Psikologoak



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA
PSIKOTERAPIA
HAUR, NERABE ETA HELDUENGANAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Toribio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GORSEZ ETA ARRASALDEZ

Urkizu, 13 - beheak
Tel. 943206823 / 686859023

DR. ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

Mediku Estetikoak
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoak

Arragüeta 2bis B, Entrepilanta A
623 003 251 - info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



Podologoak



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOIA
Erdiko klinika


Nerea Arregi (123 Kalegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kalegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kalegiatu zbkia.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



PODOLOGOIA

Maidor
Lopez
Etxebarria

Arragüeta 2 Bis-B, Behea B
Tfnua. 943 82 04 88

65 Kalegiatu zbkia.



943-206776



Puntu lila leihoan ipini nahi duenak Andretxean eskatu dezake. Horrez gain, txapak, pinak, irakurketa gida eta bestelako materiala daukate bertan, jendeari eskaintzeko.

Indarkeria matxista guztiei ezetz esateko egunaren atarian

Azaroaren 25a Indarkeria Matxista Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, udaleko hainbat sailek eta Emakumearen Mahaiko partaideek gaiaren inguruko jarduera ezberdinak antolatu dituzte. Aurtengo programazioa gai honetan ardaztuko da: nola egin aurre emakumeen aurkako indarkeria ikusezinari kontzientzia kolektibotik. Eta horrekin lotu dute egunerako aukeratu den goiburua ere: “Indarkeria matxistaren aurrean, ardura-hartze kolektiboa”.

Programazioko hainbat jarduera honezkero egin badira ere, beste batzuk datozen egunotan garatuko dira. Astelehenera begira, Berdintasuna-Andretxeak Puntu Lilaren kanpaina abiatu du, emakumeen aurkako indarkeriari ezetz esateko. Adierazi dutenez, “emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako sinboloa da puntu lila, eta sinbolo hau publikoki erakustek berekin dakar emakume eta gizonen arteko berdintasun eza oinarri duen era honetako in-



darkeriaren kontrako konpromiso aktiboa”. Hori dela eta, etxeko, dendako edo lokaleko leihoetan jartzeko puntu lila nahi duenak, Andretxeara joan daiteke jasotzera. Binilo formatuan eta paperean, bietara daukate: “Gainera, pinak eta txapak ere baditugu, emakumeen aurkako indarkeria matxista gaitzesteko sinbolo gisa”.

Bi antzezlan gaur arratsaldean

Programazioari jarraituta, gaur 18:30ean *Una Bofetada no es nada* taularatuko du Ttipia konpainiak, Andretxean. Belen Cruz Perez eta Patxi Perez Giraldez antzezleek sortu dute lana eta, taula gainean aritzeaz ez ezik, zuzendaritzarekin ere arduratzen dira, “Amaia Quirogaren kanpoko begiradarekin”. Eta ordu berean, baina Portaleko areto nagusian, Pagatxa emakume elkartearen eskutik antzerki-solasaldia hasiko da. *El Nombre* izenburuko lan honek emakumeek jasaten dituzten indarkeriak azaltzen ditu. Antolatzaileren berbetan, “antzezkitzuna amaitzen denean, joaten garenok emakumeen aurkako indarkeriari eta obrari buruz eztabaidatu ahal izango dugu artistarekin”. Sarrera doan izango da.

Astelehenean, berriz, *Matazako Ehuntzen Indarkeria Matxistaren Aurka* ekintza kolektiboa egingo da Untzagan, 11:30etik 13:00era, Altxoa alargunen elkarteko kideek, Emakumearen Mahaiko gainerako kideekin lankidetzan antolatuta. Herritar guztiei irekitako jarduera izango da. Indarkeria Matxistaren Aurkako elkarretaratzea, berriz, 18:30ean izango da, Untzagan. Bestetik, Juan San Martin Udal Liburutegiarekin batera, azaroaren 25erako Irakurketa Gida bat osatu dute, eta informazio-mahaia jarri da liburutegian bertan.

Teknologia berrien arduraz

Teknologia berrien zurrumbiloen sartuta bizi den gizartea gara, salbuespenak salbuespen. Etengabe iristen zaizkigu bizitza aldatuko dizkiguten gailu eta tresnak. Batzuek bat-bateko fenomenoak izaten dira, eta beste batzuk erroto egiten dira gurekin elkarbiziz. Datozen moduan onartzen ditugu, baina askotan ez dugu eurekin harreman egokia edukitzen asmatzen eta kolektibo zaurgarrienek jasaten dituzte elkarbizitza desegokiaren ondorio latzenak.

Euren seme-alabek pantailekin (smartphoneak, tabletak...) duten harremanarekin arduratuta, eta Gipuzkoako zenbait herritan arrakastaz garatu dituzten proiektuak oinarri hartuta, Eibarko guraso talde bat joan den urteko irailean elkartzen hasi zen gaiari nola heldu pentsatzeko. Abendu horretan gaian aditua den Miren Ros eibartarrak Ipuruako Merkatu Plazan hitzaldia eskaini zuen, “inspiratzailea izan zen”, euren berbetan, eta herri mailan teknologiarekiko ikuspegi kontzientea eta arduratsua garatzen hasi ziren.

Gipuzkoako antzeko mugimenduek Altxa Burua izena hartu zuten eta, eredu horri jarraituz, Eibarren taldea sortzea erabaki zuen helburu guraso taldeak. 50 herri inguruk osatzen duten Gipuzkoako sarearekin bat egin zuten, eta guztien artean teknologia arduraz erabiltzea

eta euren seme-alaben garapena babestea helburu duen egitasmoa lantzen dihardute.

Altxau Burua Eibar

Oihane Sanz, Naiara Sarasketa, Sorkunde Ecenarro eta Eider Murgica dira Altxau Burua Eibar taldeko kide batzuk eta talde sortu berriaren jatorria, helburuak eta egingo dituzten ekintzak kontatu dizkigute.



Guraso talde baten kezkatik abiatu den mugimendua da Altxau Burua, baina kezka horri erantzuna emateko erakunde publikoen eta ikastetxeen parte-hartzea ezinbestekoa dela uste dute. “Argi dugu ekintza batzuk guk geuk egin behar ditugula eta lanketa sakonena guk egin behar dugula, baina ezinbestekoa da denen kolaborazioa”, Murgicak dioskunez. “Gurasoen kontua da hau, erabaki pertsonalak dira, baina taldeetan berba egiten dugunean antzeko arazoak ikusten ditugu. Beraz, goazen talde-lana egitera eta familia-sare bat sortzera”, gehitzen du Sarasketak.

Lehen harremanak irailean egin zituzten arren, urtarrilean hasi ziren lan serioagoa egiten eta, nondik jo jakiteko, herriko egoeraren diagnostikoa egin zuten lehendabizi eskoletan inkestak eginez. “Ume batzuek 6-7 urterekin jasotzen dute lehen smartphonea, baina oroko



Guraso talde batek sortu du Altxau Burua Eibar taldea. EKHI BELAR

rrean DBH-ra ematen den jauzian jasotzen dute”, azaldu digute. “Beraz, adin hori atzeratzea da gure nahia”.

Seme-alabek teknologiarekin harreman arduratsu eta osasuntsua eduki dezatela nahi dute gurasoek, baina horretarako ezinbestekoa iruditzen zaie gurasoek ere teknologiarekin arduraz eta kontzientziaz jokatzeko. Horrela, denbora honetan hainbat hitzaldi antolatu dituzte aditu eta espezialisten laguntzarekin, eta gurasoek eta hezitzaileek haien kezka eta galderak partekatzeak aukera izan dute, arduraz jokatzeko jarraibideak jasoz. “Azken batean, gurasoak gara, ez gara gaian adituak”, diosku Mugicak.

Helburu nagusiak

Altxau Burua Eibar taldearen nahia haur eta nerabeen artean teknologiaren erabilera arduratsua eta osasuntsua sustatzea da eta hiru helburu nagusi dituzte. Batetik,

>>> Altxau Burua Eibar taldeak haur eta nerabeen artean pantailen (smartphone, tablet...) erabilera arduratsua eta osasuntsua sustatu nahi du

ume eta gazteei Interneterako sarbidea duten gailuak emateko unea atzeratzea. “Gailu hauek gazteenei emateko momentu egokia zein den gehiago pentsatu nahi dugu; horretarako, guraso eta familietan kontzientzia areagotu nahi dugu”, diote.

Bigarren helburua eskolak mugikorrik gabeko espazioak izatea da. “Eskolak eta beste aisialdi espazioak teknologiatik libre mantendu nahi ditugu, haurrek arreta beste jarduera batzuetan jar dezaten eta ikasteko eta sozializatzeko espazioak osasuntsuagoak izan daitezten”, zehazten dute.

Zentzu horretan, ikasturte honen hasieran ‘Mugikorrik gabeko

Arnas Gune’ dioten kartelak banatu zituzten herriko eskoletan. “Gurasoek umeak eskolara eta eskolatik jasotzeko uneetan mugikorra alde batera uzteko deia egin dugu, eta horrela eskolako espazioa mugikorretatik libre izatea bultzatu nahi dugu”, diote. Gainera, Eibarko Udalarekin elkarlanean, haurrek marrazketa eta zeramikarako duten denbora kreatibitatean erabat murgiltzeko aukera izan dezaten, jarduera horiek mugikorrik gabeko espazio bihurtu dituzte.

Taldearen hirugarren helburua helduek eta gazteek teknologia arduraz erabiltzeko prestakuntza jasotzea, eta familiak eredu izatea da.



Urtebete inguruko lanketa egin ondoren, aurreko barixakuan ikusi zuen argia Altxau Burua Taldeak EKHI BELAR

“Teknologia arduraz erabiltzeko gaitasuna ez da berez sortzen, eta familiak eredu izatea funtsezkoa da. Horregatik, gurasoekin eta haurrekin prestakuntza eta kontzientziario ekintzak bultzatu nahi ditugu”, azaltzen dute.

ZEOS programaren eta merkatarientzako kanpaina

Azken helburu horrekin lotuta dago abenduaren 2an, 3an, 9an eta 10ean garatuko duten tailerra. Gaian adituak diren Telmo Lazkano eta Maitane Ormazabal izango dira hizlariak eta ZEOS programa aurkeztuko dute bertan, teknologia arduraz erabiltzeko bideak eta osasuntsu jokatzeko baliabideak azalduz. “Oso hizlari onak dira”, Ecenarroren ustez.

Saioak Coliseo antzokian egingo dira, 18:00etatik 20:00etara, eta gurasoak eta hezitzaileak saio guztietara joatea gomendatzen dute. Parte-hartzea doakoa izango da,

baina Udalaren webgunean dagoen formularioa bete beharko da aurretik (<https://formularioak.eibar.eus/eu/zeosprograma>).

Ekintza horrez gain, herriko merkatariekin batera beste proiektu bat garatu nahi du Altxau Burua taldeak. “Gazteei mugikorra emateko arrazoietakoa bat izaten da, kalean zerbait gertatzen bazaio, gurasoei abisatzeko aukera edukitzea”, esan digu Sanzek. Arlo horri beste modu batean heltzeko, ‘Gurea erabili zeinke’ kanpaina jarri nahi dute martxan, herriko saltokietan gazteek larrialdietan telefono bat erabili ahal izateko. Horrela, kanpainarekin bat egiten duten saltokiek ‘Gurea erabili zeinke’ dioen pegatina bat jasoko dute, eta honek saltoki horretan telefonoa eskuragarri dagoela adieraziko du.

Ez teknologiaren aurka

Guraso taldeak beso zabalik hartuko lituzke ekimenean lagunduko

luketen kide berriak eta zenbait bide daude eurekin harremanetan jartzeko. Batetik, eibar@altxaburua.eus helbidera idatzi daiteke, eta bestetik Instagram kontua zabaldu dute taldearen eta gaiaren inguruko informazioa zabaltzeko: [@altxaburuaeibar](https://www.instagram.com/altxaburuaeibar). “Kontrajarria dirudi aipatu dugun guztia esan eta gero sare sozialetan kontua zabaltzea, baina argi laga nahi dugu ez gaudela mugikorren eta horrelakoen kontra. Are gehiago, gauza on asko eskaintzen dituzte. Euren erabilera arduratsu eta osasuntsua besterik ez dugu sustatu nahi”, zehazten du laukoteak.

BIDEOA





OSKAR ARANTZABAL IRAETA

Nazionalitate ez zuzena

Sarri baino sarriagotan entzun (eta esan) dugu euskaldunok ez garela ez frantses eta ez espainiar (edo, nahiago baduzue, ez espainiar eta ez frantses). Duela gutxi arnas luzeko egitasmoekin datorren kultur elkarte bat sortzeko izapide telematikoak abiatu genituen euskadi.eus webgunearen erregistroan eta hara non, handik hamar bat egunera, gure harridurarako, zuzenketa errekerimendu hau jaso genuen, hitzez hitz: *“Sustatzaile guztien nazionalitatea ez da zuzena”*.

Hiru sustatzaile nagusiok, herritartasuna deritzon atalean, *“Euskal Herrikoa”* jarri genuen, itxuraz okerra dena ustez gureak diren erakundeentzat. Gureak diot bederen gure zergekin ordaintzen ditugulako. Oraintsu jakin berri dugu ESP dela zuzentzat hartzen dutena (zernahi delarik hori: ESPerpentoa? ... edo, baikorrago izate aldera... ESPabilatu!)

Deigarria da oso azken bolada honetan zenbait aho ezagunetatik entzuten ari garenean diskurtsoa utopia identitarioak (sic) alde batera uzteko. Espainiako loteria ez al da nazionala ba? Eta pasa ezin daitezkeen marra gorriak banderaren *“piperpotearena”* edota *“la Roja”* renak gure selekzioarekin al dira? Benetan baztertu behar direnak supremazismo identitarioak dira, munduko historiaren garairik ilunenetara eramaten gaituztenak ezinbestean: inperioak, esklabotza, etab.

Benetan demokratik eta progresistak diren gertuko herrialdeetan, hala nola Suitza eta Belgika, ez dute konstituzio arrazistarik, bigarren mailako herritar eta hizkuntzak legez (beraienak, noski) inposatzen dituztenak. Egunotan Baionako epaitegiak isun ekonomiko bat jarri nahi izan dio euskaraz deklaratzeari eskatu zuen herritar bati, giza eskubideak asmatu edo omen ziren estatu horretan...

Zorionez nazioa eta estatua ondo bereizten dituzte herrialde aurreratueta, oro har pragmatikoagoak direnak. Pasaportearen auziaz harago, adibidez Alemanian hiritartasunaren kontzeptua darabilte, anglosaxoiek esate baterako nortasun agiriari ID (*Identity Document*) deritzote, inolako naziorik aipatu gabe. Hain zaila al da ulertzea NORTasuna NORberak erabakitzen duela, besteekiko NORabidearen errespetuan beti ere?

“Hain zaila al da ulertzea NORTasuna NORberak erabakitzen duela, besteekiko NORabidearen errespetuan beti ere?”

ek!

Eibarko ...eta kitto!
Euskara Elkarteko
hedabidea

dkt

Debabarreneko
Komunikazio
Taldea



Lurrari lotuak

**MIRIAN ARRIZABALAGA
ETA IÑAKI ANSOLA
BARATZEZAINA ETA ARTZAINA**

Elgoibarko Mausitxa baserrian elkartu ditugu Mirian Arrizabalaga eta Iñaki Ansola baserriko jardunaz eta lehen sektoreaz berba egiteko. Bere garaian, biek ala biek erabaki zuten baserriko jardunari segida ematea eta halaxe bizi dira orain, lurrari eta eguzkiari lotuak.

Testua: Egoitz Unamuno.

Argazkiak: Gurutze Ariznabarreta.

Udazkena da, neguaren ataria. Zein lanetan diharduzue garai honetan? **Mirian Arrizabalaga:** Esango nuke kontrako bidean gaudela (barreak). Ni, berez, denboraldi gogorrena bukatzen. Udako landaketa denak garbituta, negukoak landatuta eta orain ongarrri berdeekin hastekotan.

Iñaki Ansola: Gu, guztiz kontrara. Guretzat ikasturte hasiera modukoa da. Niretzat urteko garairik gogorrena da hau eta politena ere bai; ilusio garai bat. Hasten dira arkumeak jaiotzen eta ziklo dena jartzen da martxan. Ardiez gain badauzkagu behi batzuk ere eta laster hasiko gara barrura sartzen. Horrek lana gehitzen du.

Nola antolatzen duzue eguna?

M.A.: Azaroan gaude, eguna dezente moztu du eta lurrera joateko argitasuna behar dut. Negutegietan argirik ez jartzea erabaki genuen, bestela ere nahiko ordu baditugu-eta lanerako. Beraz, garaiotan pixkat berandutxoago mugitzen gara. Egunean banaketa egitea tokatzen bada, uzta biltzen aritzen naiz, eta eguraldiak uzten baldin badu, azkenengo ereinketak egiten.

I.A.: Orduan oporrak hartzeko moduan orain, ezta?

M.A.: Hiru egun hartu ditut, oraingoz. (Barreak)

I.A.: Ni egun batean jaikitzen naiz zazpiretan eta hurrengoan goizeko bostetan. Ez dut izaten ordutegi finkorik jaikitzeko eta ezta oheratzeko ere. Goizean jaio diren arkumeak organizatzen ditugu. Arkumeren bat goseak baldin badago, esnea eman... Errapeak zaindu eta jaten eman ardiei... Kanpora atera... Oherako ere ez daukagu ordurik. Atzo gaueko hamarretarako ohean nengoen, baina goizeko ordu-



“Negutegietan argirik ez jartzea erabaki genuen, bestela ere nahiko ordu baditugu-eta lanerako”

“Oso astuna egiten zaidana da burokrazia. Azkenengo urteetan asko hazi da”

“Lurrarekiko kontaktua meditazio moduko bat ere izan daiteke momentu batzuetan”

MIRIAN ARRIZABALAGA BADIOLA ITZIAR, 1983

Doniene Haundi baserrian jaioa. Ikasketaz ingeniari teknikoa da, eta 2009an ekin zion profesionalki baratzagintza ekologikoari. Duela hamabi urtetik, Biolurreko lehendakaria da eta Amillubi proiektuko zuzendaritzako kidea ere bada.



“Niretzat urteko garairik gogorrena da hau eta politena ere bai; ilusioz betetako garai bat da”

“Erosten duen horri erakutsi behar diogu lurrari lotutako abeltzantza egiten dugula”

“Iaz, ia berrogei ardi hil zizkigun txakur batek. Tarteka etortzen zen eta hiltzen zizkigun”

IÑAKI ANSOLA SALEGI ELGOIBAR, 1984

Mausitxa baserrian jaioa. Goi mailako ziklo bat ikasi zuen Fraisoro nekazal eskolan. 2004an ekin zion artzaintzan eta gaztagintzan profesionalki lan egiteari eta harrezkero bertan dihardu.

bietarako kortan ardiekin. Gogorra izaten da, baina niretzat ilusioz betetako garai bat da. Lan askokoa, baina dotorea.

Gainerakoan, nolako ari da izaten 2024. urtea?

M.A.: Baratzerako oso txarra! Otsailean hogeitau egunetan eta aurreratu zen behar ez zena. Maiatza oso hotza izan zen. Gogoratzen naiz Itziarren bost graduko goizak izan genituela. Landaketekin asmatu ezinda ibili ginen. Uda ere antzera joan da: argitasun gutxi, euri asko, lurra goxatu ezinda, landareak sufritzen... Eta uzta eskasak. Gainera, kostan nabarmenagoa izan da, euri gehiago izan dugulako. Beste urteekin alderatuta, eskasagoa izan da. Ez bakarrik Euskal Herrian. Aurten justu Britainiako baratzezain batzuekin ere harremana egin dut eta eurek ere nahiko urte eskasa izan dute. Orain negutegian ahalik eta gehien aprobetxatuko dugu espazioa, negua ahalik eta ondoen pasatu eta datorren urtea hobea izango den itxaropenarekin.

I.A.: Esaten dute feria txarrik ez dela izaten denentzako eta nik firmatuko nuke aurtengoa moduko urte bat (barreak). Aurten eguzki oso gutxi izan da eta eduki dugu belarra ikaragarri. Kanpoak oso-oso berde egon dira, baina belar hori oso biguna izan da eta ardiek eta behiek beherakoa izan dute askotan. Baina egon da bolumena. Alde horretatik begiratu-ta, guretzako ez da izan hain urte txarra. Iazkoa okerragoa izan zen. Udaberria oso lehorra izan zen, eta ez genuen izan janik. Aurten, soberan. Makala, baina soberan.

Igartzen da azkenengo urteetan klima aldaketa. Ikusten ditugu neguak askoz ere suabeagoak direla. Urtarrilean, hogeitau gradu eta arbolak loretan! Aurtengo uda ere oso atipikoa izan da. Badago zerbait atzetik. Animalietan ere igartzen da. Aztoramen puntu hori... Hor badago aldaketaren bat.

Ofizioa beharko da horri aurre egiteko. Zuek non ikasi duzue ofizioa?

M.A.: Nik esango nuke ia dena etxean ikasi dudala, nahiz eta ez izan ekologikoan, lurrari lotutako ekoizpena egin izan delako etxean. Horrez gain, lurra hobeto zaintzeko formazio laburrak egin izan ditugu Biolur elkartearen bitartez, Fraisoron, baina oinarria etxean jaso dut.

I.A.: Gu biok baserrian jaiotakoak gara eta ume-umetatik ikusi dugu gure aurrekoek zelan egiten zuten lan. Ondorioz, ohitura batzuk hartzen joan gara umetatik. Niri tokatu izan zait gurasoekin lan egitea eta ohitu naiz euren moduetara. Ez da erraza izaten aitari edo amari esatea 'hau horrela egin behar dugu'. Aldaketa hori nahiko konplikatu izaten da. Nahikoa

“Amillubik ilusioa piztu du”

"Baratzegintza ekologikoaren arloan Amillubi proiektua nobedade garrantzitsua izan da.

Amillubi Zestoako Iraetako erriberan dagoen baserri bat da. Lurrak erosteko aukera sortu zen eta iaz diru bilketa bat egin genuen lur horiek erosteko, batez ere, ikusten genuelako Biolurrek dituen bi helburuei erantzuten ziela: alde batetik, erreleboaren gaiari, lehen sektore osoan daukagun arazo handi bati, eta bestetik, lurra bilatzeari. Aliatu dezente lortu genituen eta bailarako udalen laguntzarekin bi pertsona jardun erdiz liberatzea lortu genuen. Orain, abenduaren 1ean, beteko da urtebete proiektua plazaratu genuela. Bide onean goaz. Oraindik ez daukagu lurrak erosteko diru dena bilduta, baina gehiena bai, eta lurra erabiltzen hasita gaude: udan baratzezainok porrua egin dugu, okinek garia egin nahi dute, babarruna ere landatu genuen, baina eguraldiagatik ez da ondo joan... Asmoa da zati batean proiektu finko bat garatzea, baina zehazteko dago eraikina eta lurrak nola erabiliko diren. Normalean lehen sektoretik albiste grisak datoz eta ikusi dugu proiektu honek ilusioa piztu duela. Baditu aukerak zabaltzeko eta ilusio horri helduta goaz aurrera".


MIRIAN ARRIZABALAGA BADIOLA

diskusio izaten dira. Nik ere oro har etxean ikasi dut baina gero ikasketak egin nituen Fraisoron, hainbat ikastaro. Ondo etortzen da ikustea besteek zer egiten duten, gutxienez jakiteko zer ez den egin behar. Munduari ireki eta ikusi zer dagoen. Makinaria aldetik, informatika aldetik, eguneratu egin gara gu ere.

Zer egiten zaizue zailena?

M.A.: Lagun batek esaten zidan: “Ez dago landaketa zailik!”. “Zaila dena da denak batera egitea”, esan nion. Batzuetan frustrantea egiten da badakigulako nola egin eta ez garelako iristen egitera. Argi daukagu eguraldiak asko eragiten digula baina horren aurka egiterik ez daukagula. Lagatzen duenean, egin dezakegu, eta ez duenean lagatzen, ez.

Oso astuna egiten zaidana da burokrazia. Azkenengo urteetan asko hazi da eta horretan jartzea asko kostatzen zait. Nik erabaki dut nire lana izatea lurrari lotua eta alde txarrak onartzen ditut, baina gero inposatzen dizkigute kanpotik beste gauza pila



bat bai edo bai ikasi behar ditugunak, eta ikusten duguna da beste ofizio batzuetan ez dituztela halako lan desberdinak egin beharrik. Esango nuke autonomo lan egiten dutenei lotuta dihoan zerbait dela.

I.A.: Nik okerren daroatena da nire eskuetatik kanpo gelditzen den hori. Adibidez, gaur hamabost egun, Gipuzkoan mingain urdin positibo bat antzeman zuten, eta orain, behartzen gaituzte ardi denak bakunatzera. Gure kasuan, pasa den astelehenean bakunatu genituen eta izan genituen hainbat aborto, hil zitzaigun ardi bat... Badakigu zein diren bakunaren ondorioak, baina ez dakigu gaitzak zer sortzen duen. Gaitza ez dugu ezagutzen. Horrelako beste hainbat gauza daude goitik agintzen dizkigutenak eta behartuta gaudenak betetzera. Beste adibide bat da Ticket Bai. Nire amak laga egin ditu lehen egiten zituen hainbat lan. Beste lan bat eta beste kostu bat gehiago. Horrek eskema denak apurtzen dizkigu.

Bestalde, aurreko urtean, oso gaizki ibili ginen txakurren gaiarekin. Gero eta txakur gehiago dago



eta nik ondo ikusten dut, baina tentuz jokatu behar da. Iaz, ia berrogei ardi hil zizkigun txakur batek. Tarteka etortzen zen eta hiltzen zizkigun. Sekulako inpotentzia sentitzen dugu. Deitu Udaltzaingora, deitu ertzainei, jarri salaketa eta erantzuten digute ardiak hobeto zaintzeko.

Badakigu gure eguneroko lana zein den, baina kanpotik datozen lanek, burokratikoek, dela mingain urdinaren gaiak, txakurrenak... Horiek sortzen didate niri kezka handiena.

Eta alderantziz, zer da gehien estimatzen duzuen?

M.A.: Berez uzta jasotzeak izan beharko luke, baina normalean bilketa ez da nire lan gogokoena izaten, aurten uzta hobeak gustura bilduko nituzkeen arren. Egunerokoan lurrarekiko kontaktua meditazio moduko bat ere izan daiteke momentu batzuetan: mugikorra alde batera laga, landareak nola dauden begira jarri... Bakardade momentu horiek.

I.A.: Bai, gure ofizioan momentu asko pasatzen ditugu bakarrik. Niri animalia artean ibiltzea asko gustatzen zait eta horrek asko betetzen nau. Arku-meak jaiotzea... Azkenengo urteetan, zortez, nahiko

ondo joan zaigu txapelketetan, eta jendeak zoriontzen gaituenean, pentsatzen dugu: “Zeozero ondo egiten dihardugu”. Eskerrak!

Ondo egiteari eta kalitateari begira, zer da zuek bereziki zaintzen duzuen?

M.A.: Gure oinarria lurra zaintzea eta hobetzea da, eta gero, jatekoaren zaporea zaintzea eta jaten duguna garaikoa izatea. Haziak eta landareak lortzeko, berriz, gertuko sarea baliatzen dugu.

I.A.: Gu ez gara gai Gaztelako jendearekin bolumentean lehiatzeko eta, beraz, egin behar duguna da merkatuan bereiztu eta erosten duen horri erakutsi lurrari lotutako nekazaritza edo abeltzantza egiten dugula. Nire ustez, jende batek gero eta gehiago begiratzen dio erosten duen produktuari eta horrek ingurumenean duen eraginari.

M.A.: Nik ez dakit. Batzuetan iruditzen zait desinformazio handia dagoela, eta jendeak, amets batean bezala, uste duela edozein saltokitan topatzen dituen barazki freskoak oso kilometro gutxira ekoiztu direla, baina ez. Esango nuke jende askok ez duela pentsatu ere egiten, batez ere, barazkiei begira. Ez



dute usaintzen elikagaien industria nondik nora doan.

I.A.: Pentsatu behar dugu jaten dugunaren %15-25 bitartean ekoizten dugula hemen. Gainerakoa kanpotik dator. Eta etorri beharrean dago, bertan gero eta gutxiago sortzen dugulako.

M.A.: Hogeita bost esan duzu, baina ez dakit inork ongi kalkulatu duen, nik %4 ere entzun izan baitut.

I.A.: Jakina, ni ari nintzen haragi sektoreaz...

Zuek nola saltzen duzue? Zuzenean ala zeharkako bideak erabilia?

M.A.: Guk hiru bide ditugu. Bata, merkatua, Deban. Normalean, astean bitan joaten gara. Kontsumo taldeak ere baditugu, taldetxo bat Deban eta beste bat Eibarren, eta denda txikietan ere saltzen dugu. Herriko bi dendatan eta jatetxeren batean ere bai. Azoketara joateari utzi egin genion. Lehen igual bazen urteko uzta saltzeko leku bat, baina orain gehiago da eskaparismoa eta guri lan handia eskatzen digu. Osteko juerga izaten da baloratuena.

I.A.: Bai, askotan feriak hala izaten dira. Jai baten parte izaten gara gu ere. Gure kasuan, azokak ematen digu aukera bezeroei produktua aurkezteko eta azaltzeko. Gainerakoan, guk saltzen dugu denda txikietan. Ehun puntutan saltzen dute gure gazta. Denda handiekin ere egiten dugu lan pixka bat,

Eroskirekin eta BMrekin. %85 saltzen dugu Gipuzkoan eta Bizkaian eta Espainian ere saltzen dugu zeozer. Etxetik bertatik ere saltzen dugu zerbait eta gero feria konkretu batzuetan: Elgoibarren abuztuan, Idiazabalen eta Mendaron maiatzean... Gehien-gehien, dendetan, baina.

Begia Debabarrenean jarrita, zelan ikusten duzue lehen sektorea bailaran?

I.A.: Ni hasi nintzenetik, uste dut joera beti izan dela negatiboa. Esango nuke gurasoen partetik jaso dugun mezua beti izan dela joan baserritik, ikasi edo hasi tailerrean lanean. Tendentzia horrek jarraitzen du gaurdaino. Sumatzen da jende gazte bat ekiteko ilusioz, baina hasierak oso zailak dira. Lurrekin arazo handia dago, sekulako prezioa ezartzen diogulako. Elgoibarren ez da jenderik gelditzen lehen sektorean.

M.A.: Nik batzuetan esaten dut Iparraldera joatea mozkorraldi moduko bat dela, han laborari eta abeltzainek harro esaten dutelako beraien bizibidea zein den. Soldata ez da iristen funtzionario batenera, baina ez daude hain urrun gizarteko batezbestekotik. Beste egoera bat da.

I.A.: Nire ustez badago alde handi bat. Hemen gaztandegi bati eskatzen zaio Garcia Vaqueroren adinako azpiegiturak izatea. Ostera, joaten zara Iparral-



dera eta ikusten duzu artzai bat gazta egiten, txukun, txabolatxo batean eta gastu ekonomiko oso txiki batekin; berak saltzeko baime-na dauka eta guk ez. Esan behar da baita ere gure aldean askoz ere gehiago saiatzan direla borrokatzen han. Gu beti banatzen gara, eta bakoitzak bere gerra egiten du. Frantziako estatuarekin konparatuta, esango nuke oso atzera gaudela.

Instituzioei zer eskatuko zeniekete?

I.A.: Entzutea eta gure iritzia kontuan izatea, iristen direlako hainbat gai eta beti delako Europak agindu duela edo Ministerioak... Beti da goikoren batek agindu duela eta bai edo bai bete behar dugula; guk esaten dugunak ez du ezertarako balio.

M.A.: Nekazaritza ekologikoaren kasuan, existitzen garela kontuan hartzea. Oso eremu eta zenbaki txikiak maneiatzen ditugunez, ez gaituzte kontuan hartzen. Inbertsio handietarako tendentzia egon da eta

“Azkenengo urteetan txapelketak izen ona eman digu”

Gaztagintzan markek garrantzi berezia dute, ezta?

"Idiazabalen barruan ehun eta zazpi ekoizle gaude. Gehiago handi bat izendapen horren barruan gaude. Hor bakoitzaren markak badu bere garrantzia. Guri azkenengo urteetan txapelketak izen ona eman digu, eta horregatik, jende batek Idiazabal gazta bilatzen du, baina beste jende batek bilatzen du Mausitxa. Horrek aukera bat ematen du merkatuan posizionatzeko. Orokorrean, nahiko ongi ari gara saltzen. Iaz Idiazabal sor-marka gaztarik gabe geratu zen eta aurten ere martxa berdinean doa.

Orain jatorri izendapenaren barruan daukagu Europatik datorren lege bat. Idiazabal gaztak izan behar du Gipuzkoa, Bizkaia, Araba edo Nafarroan egina, ardi latxaren esnearekin egina eta gutxienez izan behar du bi hilabeteko ontze prozesua. Orain, horrez gain, ardi horrek jaten duenak ere lurralde horretakoa izan behar du. Denok ez dugu berdin ikusten. Artzain batzuek jo dute ekoizpen intentsibora, bolumen handiagoa ekoiztera eta ardientzako erosten duten ia jateko dena kanpotik ekartzen dute. Dira ardi batzuk ia eguzkirik ikusten ez dutenak, urteko zatirik handiena ikuilu barruan ematen dutelako. Gureak urtean zortzi hilabetez kanpoko belar hutsarekin elikatzen dira. Orain, gehieneko kopuru batzuk ezarri nahi dituzte, eta eztabaida sortu da geure artean. Ez dakit zertan amaituko den".

IÑAKI ANSOLA SALEGI



zentralizatzea ere bai. Ez dute baserrien galera gelditu, joera egon delako pentsatzea zenbat eta gutxiago eta handiagoak egon, hobe zela. Berez, tendentziak kontrakoak izan beharko luke: izan behar gara asko, eremu txikiekin edo taldetan batuta. Bakardadea bilatua bada, ederra da, baina beste aukerarik ez daukazunean, ez da hain ona. Horregatik ari dira sortzen ekoizle eta herritarren arteko formulak. **Nola ikusten duzue jarraipena epe ertain edo luze?**

I.A.: Ni Diego Simeone modukoa naiz: partidaz partida. (Barreak)

M.A.: Aurtengo urtea oso gogorra egin zait, eta kanpoan ordu batzuk lan egiten hasi beharko nintzela pentsatzera ere iritsi naiz. Nekazaritza ekologikoan aitzindari izan zen Lapatza baserrikoak esan zidan: "Eutsi egin behar da!".

Negutegi batzuk gehiago behar ditut. Gaur egun, azaleraren %10a da negutegia. Orokorrean gutxi da eta, aukera izanez gero, beste negutegi bat jarriko nuke, eguraldi txarra egiten duen egunetan ere lan egin ahal izateko.

I.A.: Nik orain daukadanari eustearekin nahikoa lan izango dut. Gurasoak adinean aurrera doaz eta euren eskulana egiteko jendea topatzea ikaragarri kostatzen da. Gero daude hurrengo belaunaldikoak; ia horiek zer egiten duten. Ni, etxe honetan, zortzigarren

belaunaldikoa naiz eta azkena izateak ere pena emango lidake, itzelezko pena. Ni ez noa seme-alabei presiorik sartzera, baina ia eurek zer erabakitzen duten. Gainerakoan, lehengo horretan jarraitzea izango litzateke helburu printzipala.

Laburrean

Artzain ona izateko garrantzitsuenak?

I.A.: Ardi onak izatea (Barreak).

Baratzezain ona izateko?

M.A.: Arreta handia jartzea.

Miresten duzue...

I.A.: Gure ardi arraza: Latxa.

M.A.: Gipuzkoan ekologikoan hasi zirenak.

Gazta mota bat?

I.A.: Gazta urdina.

Barazki bat?

M.A.: Aza.

Azoka bat?

I.A.: Elgoibarko Gabon Zaharretakoa.

M.A.: Azpeitikoa.

Erreminta bat?

I.A.: Artzain-makila.

M.A.: Labana.

25 podium Eibar Igerixanentzat etxean jokaturako jardunaldian

Aurreko zapatuan Ipurua kiroldegian jokaturako Neguko Gipuzkoako Ligako bigarren jardunaldian, gure herriko igerilariek lan bikaina egin zuten, guztira 25 domina irabazteko: urrezko zortzi, zilarrezko 11 eta brontzezko sei. Eibar Igerixaneko taldea 23 igerilarik osatu zuten, 13 emakumezko eta 10 gizonezko; euretako 13 federatuen mailakoak izanik eta beste 10ak eskola mailakoak. Federatuek 12 domina lortu zituzten, besteek 13.

Federatuen artean, Asier Gomez izan zen gehien nabarmendu zena, hiru proba irabaziz. Bigarren sailkatu ziren euren probetan Ekaitz Lago (200 libreak), Ander Izagirre (50 tximeleta) eta Itsaso Castrillo (100 bizkar), gizonzkoen 4x100 libreko erreleboarekin batera. Eta



hirugarren izan ziren Izaro Onea, Alba Sierra eta Ekaitz Lago, postu horretan bitan amaitu zuen Jokin Onekarekin batera.

Eskola mailakoei dagokienez, Ander Castro nabarmendu zen, hiru probetan garaile izanda. Ane Larrañagak 100 estiloak irabazi

zituena eta bigarren izan zen beste bitan, Malen Pedrosak 100eko bizkarrekoa irabazi zuen eta bigarren izan zen beste batean eta, azkenik, Nahia Martinezek eta Julen Prietok, lan bikaina eginez, hiru eta bi zilarrezko domina irabazi zituzten, hurrenez hurren.



Inda Team-ekoak garaile Zarautzen

Aurreko zapatuan Zarauzko Arizbatalde kiroldegian jokaturako k1 borroka modalitateko jaialdian, gure herriko Inda Team taldeko Jhon Nunez eta Egoitz Rios garaile izan ziren puntuetara euren borroketan. Jhon Nunezek k1 gold modalitatean lehiatu zuen, Errenteriako Batistari nagusituz, eta Egoitz Rios-ek, bere aldetik, Kurraia Martutene taldeko Riad garaitu zuen.



Urbatek partidu ona eskaini zuen Orbean

Urbateko senior mailako bigarren taldeak 13-8 irabazi zion, eroso, Setao talde serioari Euskal Herriko 1. Mailako Ligako partiduan. Eibartarrek intentsitatea jarri zioten neurketari hasieratik eta horrek bideratu zuen garaipena, ikusle asko izan zituena neurketan. Gauzak ez doazkio hain ondo 2. Nazional Mailan jokatzen

duen Urbateko lehenengoko taldeari, sailkapeneko azkena unehonetan. Asteburu honetan ere ez du izango punturik biltzeko aukera askorik, lehen bi postuetan dauden Poble Nou eta Badia taldeen igerilekuetan jokatu beharko baitu. Bihar Orbean Master mailakoek WP Donostia hartuko dute.

Bi autobus handi haurren ikasturteko bigarrego mendi irteeran

Aurreko domekako Araotz-Orkatzategi-Aitzulo-Araotz mendi irteeran 79 haur izan ziren partaide, hainbat gurasok lagunduta, guztira 11 kilometroren bueltako ibilbide zirkularra osatzeko. Bi autobus

handitan joan ziren haraino eta, Arrikutzeko kobetako aparkalekuketik abiatuta, Orkatzategi tontorra zapaltzeaz aparte, Aitzulo magikoa ere bisitatu zuten. Eguraldia lagun izan zuten oraingoan ere, tenpera-

tura atseginarekin. Hurrengo irteera abenduaren 15ean egingo dute: Flysch-a izango dute orduan zain.

Bestalde, eta helduen txangoei begira, asteburu honetan Eibarko hegoaldeko mendietan zehar egingo dute ibilaldia Deporrek mendi batzordekoek, zehazki Zaldibartik abiatu eta, Elgetatik pasatu ondoren, Azkonabieta eta Topinburu igotzeko, Eibarrera jaitsi aurretik, 22 kilometroko ibilbidea osatu eta gero. Bestalde, hilaren 26an (martitzena) Manuel Iradier Txangolari Elkartearekin senidetze-hitzarrena sinatuko dute Deporrek; hori ospatzeko Itxoganara irteera antolatu dute, bazkari eta guzti. Diotenez, “urteko azken irteera eta bazkaria ere prestatzen dihardugu; ondo bidean bazkaria klubean bertan egingo dugu”.



Kuadrilla polita bildu zen Araotzen hasi eta amaitu zen mendi irteeran.

Ipuruako Oinarri mailako bi taldeak Espainiako txapelketan dira

Gaur eta bihar Zaragozan jokoan izango diren Oinarri mailako Espainiako Txapelketetan Ipuruako jubenil eta infantil taldeek hartuko dute parte. Jubenil mailakoak beregituraketa sakona izan du eta horrek denboraldia laburragoa izatea ekarri dio. Boskotearen hiru gimnasta berriak dira (Nidia Olasolo, Leire Sanchez eta Itxaso Urkiola) eta Emile Zamakola eta June Araujorekin batera, koordinazio maila bikaina lortu dute dagoeneko; horren proba da Euskalgymen lortutako 3. postua. Zapatuan, 21:30ak aldera, izango dute hitzordua. Infantilen kasuan, honakoa euren lehenengo lehiaketa izango da estatu mailan. Uxue Astarloa, Noa Larrañaga, Nora Eizagirre, Maddi Arrazola, Maren Jainaga

eta Maddi Lanas irailean hasi ziren maila horretan eta maila eman dute jokotutako torneoetan. Euren txanda gaur, barixakua, izango da, 17:00ak aldera.

Aurreko asteburuan, bestalde, Ipurua klubeko hiru talde federa-

tuak eta Maddi Teran oinarri jubenila izan ziren Uteboko txapelketan parte hartzen. Senior taldeak bronzetza lortu zuen, infantilak laugarrenak izan ziren eta jubenilak 15. tokian geratu ziren. Maddi Teran, berriz, 12. sailkatu zen bakarkoetan.



Ganix Rodriguezek ihes egin du Euskal Herriko hiru-txirlo txapelketan

Asola Berriko bolariak hiru txirloren alde ateratzen dio Markinako Oier Azurmendi bigarrenari, lauko tartea kentzen dio Elgetako Asier Azkarateri, eta Mateo Guenaga markinarrak baino bost gehiago ditu azken tiraldiaren bezperan. Eta binaka ere Ganix liderrak eta Alex Camposek aurea hartu dute sailkapenean, hor ere hiru txirloko aldearekin Elgetako Azkaratek eta Sebas Aranzabalek osatutako bikotearekiko, eta Asola Berriko bikoteak lau kentzen dizkio hirugarren diren Markinako Jabier Martino



Azken tiraldian lehenengo sei postuetan sailkatutakoak, euren sariekkin.

eta Guenagari. Emakumezkoetan Aretxabaletako Isana Gorosabel eta Elgoibarko San Migueleko Aitziber Olaizola berdinduta daude gorenear.

165 korrikalarik hartu zuten parte XI. Asier Cuevas herri-lasterketan

Aurreko zapatuan herriko kaleetan zehar jokaturako Asier Cuevas herri-lasterketaren XI. edizioan 165 korrikalari izan ziren helmugaratutakoak, euretako 37 emakumezkoak. Klub Deportiboko Julen Teran eibartarra izan zen irabazlea, 23 minutu eta 52 segundoko denborarekin, Yassine Bih mungiarra eta Iñaki Elola azkoitiarraren aurretik, biak ia minutu erdira helmugaratutakoak. Emakumezkoetan Idoia Nogales debarra nagusitu zen (28'48"), Oihane Sarasketa eibartarrari 13 segundo aterata, eta Nahia Ibarzabal markinarrari minutu batetik gora. Bestalde, erdia baino gehiago Eibarkoak izan ziren: 96 korrikalari, hain zuzen, %58 pasatuta. Probaren sailkapen guztiak sailkapenak.com helbidean daude.



Julen Teran irabazlea, probaren amaieran. GABRIEL BELDARRAIN

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

- Emakumezkoen 1. Maila**
Atletico de Madrid - EIBAR (etzi, 16:00)
- Gizonezkoen 2. Maila**
Burgos - EIBAR (bihar, 18:30)
- Gizonezkoen 2. Maila RFEF**
Teruel - EIBAR B (etzi, 12:00)
- Emakumezkoen 2. Maila RFEF**
Atletico de Madrid C - EIBAR B (bihar, 16:00)
- Gizonezkoen 3. Maila RFEF**
Touring - EIBAR C (bihar, 16:30)
- Emakumezkoen Euskal Liga**
EIBAR C - Erandioko (etzi, 15:30)
- Errejonaleko Gorengo Maila**
Lagun Onak B - URKI (bihar, 11:15)
EIBARTARRAK - Amaikak Bat (bihar, 18:00)
- Errejonaleko 1. Maila**
Mutriku B - URKI B (etzi, 11:00)
- Ohorezko Jubenil Maila**
Osasuna - EIBAR (etzi, 10:15)
- Jubenilen Nazional Liga**
EIBAR B - Antiguoko B (bihar, 15:30)
- Kadeteen Euskal Liga**
Romo - EIBAR (etzi, 19:30)

FUTBOL-ZALETUA

- Garajes Garcia - L. Rueda (bihar, 09:00)
- Adahi Etxegi - Baserri (bihar, 10:30)
- BOJ - Xania Taberna (etzi, 09:00)
- Malape Taberna - Bar Marem (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

- Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila**
Goierri - EIBARTARRAK (bihar, 16:00)

ESKUBALOIA

- Emakumezkoen Zilarrezko Maila**
MEK EIBAR - Anabel Camargo (bihar, 18:30)
- Gizonezkoen 1. Nazional Maila**
Anaitasuna - MEK EIBAR (bihar, 20:30)
- Emakumezkoen Euskadiko Liga**
Egia Baztarre - MEK EIBAR B (bihar, 20:00)
- Gizonezkoen Lurraldeko Liga**
Txingudi - MEK EIBAR B (bihar, 19:00)

SASKIBALOIA

- Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila**
ARTES. JUANTXO - Easo (bihar, 14:30)
- Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila**
Luberri Baserria - EIBAR (gaur, 19:45)
- Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila**
EIBAR B - Hondarribia (bihar, 16:15)

WATERPOLOA

- Gizonezkoen 2. Nazional Maila**
Poble Nou - URBAT (bihar, 18:30)
Badia - URBAT (etzi, 08:45)
- Gizonezkoen Euskal Herriko Liga**
WP Navarra - URKI B (etzi, 16:45)
- Master Liga**
URBAT - WP Donostia (bihar, 10:00)

“Argumentuari baino gehiago, estiloari eman diot garrantzia, nola esan horri”

MIRIAM LUKI • Idazlea



Miriam Luki (Urretxu, 1973) izan da azaroko Harixa Emoten irakurle-klubeko gonbidatua, “Argialdiak” liburuarekin (Susa, 2023). Lukik bederatzi ipuin bildu ditu bere lehenengo literatura lan honetan, bederatzi egoera eta pertsonaia ezberdin bizitzaren argi-ilunak kontatzeko. Liburua sortzeko prozesuaz eta beste hamaika kontuz jardun dugu berarekin.

Euskal letretara jauzi egin duzu liburu honekin. Zer aurkituko du irakurleak?

Bederatzi narrazio non, antzokietako agertokietan bezala, fokuak piztu eta zenbait pertsonaiaren egunerokoetan sartuko dira, noiz eta pertsonaia horiek aldaketa uneak bizi dituztenean. Aldaketa horiek ohikoak dira, edonoren bizialdian gertatu ahal direnak; aldaketak, ordea, ez dira narrazioen muina, pertsonaiak aldatzen diren —batzuetan berdin gertatzeko— une horiek harrapatzea baizik.

Egoera eta pertsonaia ezberdinen bizitzak islatzen dituzu ipuinotan, bizitza arruntak, baina guztiek dute lotura, “argialdia” moduren batean esatearren...

Argialdia iluminazioa da, epifania, edo, bestela esanda, atzo ikusten ez zenuen hori gaur ikusten duzunean —aitortu, erakutsi, adierazi edo zernahi aditz kabitzen da ikusi aditzean—. Narrazio hauetan ez diot horrenbeste jaramonik egin argialdiaren arrazoiari edo mugimenduari berari, une horren erretratu zehatza idatzi nahi izan dut.

Nolakoa izan da idazketa-prozesua? Jostea bezalakoa dela aipatu zenuen Eibarko saioan...

Jostearen erreinuan kokatuko nuke, bai. Hariak botatzen ditudanean narrazio gordina legoke. Gero, hari muturrak josten edo brodatzen ditut loturak sortzeko. Esate baterako, lerroren batean eraztun bat irristatzen bada, eraztun horrek zeresana izango du, bestela ez da irristatuko. Argumentuari baino gehiago, estiloari eman diot garrantzia, nola esan horri.





Azaroko Harixa Emoten irakurle-klubean Miriam Lukiren liburuaren harira jardun zuten.

Zentzuekin jokatu dut, ez bakarrik ikusmenarekin, beste zentzuekin ere bai. Eta hori guztia, brodatzen duenak bezala egin nahi izan dut. Pareko jarduera bat baino ez zait okurrizten: sukaldaritza. Osagaiak lapiko batean sartu, nahasi, doitu eta eragin elkarrekin zerbait berria sortzeko.

Kazetaritza idatzian aritutakoa zara, herriko prentsan herritarren bizipenak eta istorioak entzun eta jasotzen. Horrelakoak informazio- edo istorio-iturri izan dituzu ipuinak idazterako orduan?

Ez modu kontziente batean, baina seguruenik urteetan entzundako kontakizunen magma hor egongo zen.

Zilarrezko Euskadi Saria jaso zuen zure lehen lan honek 2023an, liburu-saltzaileen eskutik. Horrek are bereziago egiten du saria?

Pozarren jaso nuen. Liburu-saltzaileen rola ezinbestekoa da liburuaren ibilbidean eta haiek irakurtzea, estimatzea eta saritzea zoragarria izan da.

Ebazpenaren epaia ere ez zen makala izan, egoera eta giro ezagunak liburuan islatzeko erakutsitako abilezia eta zure estilo berezia azpimarratu zuen.

Bai. Liburu-saltzaileen gremioko kideen ahotik horrelako hitzak jasotzea ba pentsa, poz handia eman zidan.

Eibarren izan zinen aurreko astean euskarazko irakurle-taldean. Zeu ere ibiltzen zara horrelakoak dinamizatzen. Nola bizi duzu esperientzia beste aldean?

Izan alde batean edo bestean, esperientzia asko gusatzzen zait. Gidari rolean irakurle bezala hazten naiz,

"Pozarren jaso nuen Zilarrezko Euskadi Saria. Liburu-saltzaileen rola ezinbestekoa da liburuaren ibilbidean eta haiek irakurtzea, estimatzea eta saritzea zoragarria izan da"

saio bakoitzean hazi ere, eta taldeetako irakurleak nola hazten diren ikusten dut bidenabar. Marabilla da hori. Beste aldean, zer esango dizut, ederra da irakurleekin norbere liburuaren irakurketa partekatzea; narrazio hauetan irakurleari parte handi bat uzten zaio lerro artean irakur dezan, esan gabeko hori bere egin dezan, amaierak asma ditzan —nahi badu betiere—, hori guztia irakurleekin bertatik bertara konpartitu ahal izatea itzela da.

Zer darabilzu esku-artearen? Zerbait idazten ari zara? Bai...

Zer ari da irakurtzen Miriam Luki?

Enrique Vila-Matasen narrazio batzuk eta Iñigo Aranbarriren beste batzuk.



Ixotu euskeria! Ez dein argixa emetau!

Hori da aurtengo Euskararen Eguna ospatzeko Euskalgintza Taldeak aukeratu duen goiburua. Abenduaren 3an, martitzena, argiak hartuko du Untzaga, argiak hartuko du Untzaga, bertan antolatuko baita eguneko ekintza nagusia, argia ardatz hartuta. 19:00etan ekingo zaio ekintzari, eta euskalgintzatik dei egiten diete herritarrei, ahal dela behintzat, “ekartzeko argia etxetik”.

Laster izango dugu gurean aurtengo Euskararen Eguna. Abenduaren 3an, martitzena aurten, izango dugu eibartarrok zer ospatu eta zer aldarrikatu. “Iluntasunari argia jarri nahi diogu eta oztopo eta zailtasunen aurrean tinko jarraituko dugula aldarrikatu”, diote euskalgintzatik. Baina horretaz gain, “ospatu ere egin nahi dugu, harro gaudelako garenaz eta egiten dugu-

naz”. Jai-girorik, beraz, ez da falta-ko aurtengo Euskararen Egunean.

Argiekin Untzagako harmailak argizatuko dira

Harmailetan ekingo zaio ekitaldi nagusiari 19:00etan: “Han elkartuko gara eta Kaxakoek prestatu duten koreografia egingo dugu guztiok batera. Erraza da, ez du konplikaziorik, edozeinek egiteko modukoa izango da”, euskalgintzatik diotenez. Hori bai, ahal dela, argia etxetik ekartzeko eskatu dute, “Interna, kandela, frontala, kriseilua... argia ematen duen edozerrek balio du”. Euskarak bizi-bizi jarraitu dezan “hauspotu egin behar dugu, ixotu, zaindu... argia itzali ez dadin. Hortik etorri da aurtengo goiburua eta hori irudikatu nahi izan dugu ekintzarekin”. Gainera, eibarrerari ere keinua egin nahi izan diote, “hain gurea den euskara ezin dugu



ahaztu, eibarrera, Eibarko euskara, eta goiburua ere horrela egin dugu, oso gureak diren berbekin”.

Aurretik Mintzodromo irekia

Argien ekitaldia baino ordubete lehenago, 18:00etatik 19:00etara, mintzodromoa egingo da Untzaga plazan: “Eibarko elkarte eta erakunde guztiak gonbidatu nahi ditugu parte hartzera. Mintzodromoan denon interesekoak izan daitezkeen gaiak komentatzen dira. Lau laguneko taldeak osatzen ditugu eta mahai baten bueltan gai errazen inguruan jarduten dute”, diote Euskara Saitetik. Izena emateko mezua idatzi daiteke euskara@eibar.eus helbidera edo telefonoz deitu 943708426 zenbakira.



Iaz jende ugari elkartu zen Santa Zezilia serenatan. EIBARKO MUSIKA BANDA

Musika kalera irtengo da asteburuan Santa Zezilia ospatzeko

Santa Zezilia ospatuko dugu gaur, azaroak 22, eta musikaren patroia delarik, musika izango da protagonista asteburuan zehar. Gainera, herritarren partaidetza bilatuko dute elkarrekin eguna ospatzeko eta, horretarako, kalera irtengo dira iluntzean eta gauerdian.

Musika maite duen herria da Eibar eta asteburuan argi eta garbi ikusi ahal izango dugu. Horrela, gaur emango zaio hasiera Santa Zezilia ospatzeko egitarauari, Eibarko Musika Eskolako kalejirarekin. Herriko musikari gazteenak Musika Eskolan elkartuko dira 17:00etan eta, Ustekabe txarangak lagunduta, kalejira egingo dute 19:00ak arte.

Ez da gaurko kalejira bakarra izango, 19:30ean Usartza Txistulari Taldekoak irtengo baitira kalera.

Debabarreneko Orfeoiak kontzertua eskainiko du bihar, 20:15ean, Karmelitetan

Gainera, eurekin batera Musika Eskolako txistu eta tronpetak ikasleak arituko dira. Ondoren, afaritxoa egingo dutela esan digute.

Serenata bihar gauerdian

Txistularien ondoren, zapatu gauerdiko urteroko ohiturari eutsiz, Santa Zezilia serenata egingo da. Serenataren 70. edizioa izango da eta, ohikoa denez, 00:00etan emango zaio hasiera Untzagan (euria egingo balu, kontzertua udaltxeko arkupeetan egingo litzateke) Eibarko Musika Bandak gidatuko duen kalejirari. Bidean, noski, herritarrek batu ahal izango dira. Iaz, adibidez, jende ugari elkartu zen eta, musika doinuei jarraituz, abestu eta dantza egin zuten bandaren atzetik.

Herritarren parte-hartzea sustatu asmoz, Eibarko Musika Bandak kantu-paperak jarri ditu denon eskura. Doan lortu daitezke Coliseo antzokian, Portalean, eta Ongi Etorri eta Trinkete tabernetan.

Kontzertua domekan

Zapatu gaueko serenataren ondoren, domeka goizean ere musikaz gozatu ahal izango dugu. Izan ere, Eibarko Musika Bandak Santa Zeziliako kontzertua eskainiko du, 12:30ean, Coliseo antzokian. "Urteko kontzerturik zailena da", Andoni Vazquez Santos bandako zuzendariaren berbetan.

Bandak bost pieza joko ditu, horietako bat Rodolfo Epelde tronpajole eibartarrarekin batera, solista bezala. R. Straussen 1. Tronpa Kontzertua joko du maila goreneko tronpajoleak. Epelderekin joko duen piezaz gain, Eibarko Musika Bandak 'Marcha eslava' (A. Dvorak), 'Pompa y circunstancia' (E. Elgar), 'Conga del fuego nuevo' (A. Marquez) eta 'Independence Day' (D. Arnold) ere joko ditu.

Bertsoak, txistorra eta bakailaoa izango dira asteburuko protagonistak

Bakailao eta txistorra artean, bagoaz Sanandresetara gerturatzen. Aurreko asteburuan herriko ikasleak eta Bacalaos Alkorta pintxo lehiaketako finalistak aritu ziren bakailaoa prestatzen, eta asteburu honetan helduen txanda izango da. Udalak antolatutako XXX. Bakailao txapelketan 42 bikotek hartuko dute parte. Domekan jokatu da, 11:00etatik aurrera Untzagan.



Udalak aurkeztu zuen kartela plagioagatik atzera bota dute, eta bigarren tokian geratu zen Amaia Bazterrika eibartarraren kartelak iragarriko ditu sanandresak.

Giro ederrean jokatu zen Eibarko Udalak antolatutako XX. Eskola arteko bakailao lehiaketa aurreko zapatuan, Errebal Plazan. Guztira 40 bikote aritu ziren bakailaoa pil-pil era prestatzen, eta epai-mahaiaren arabera oso maila ona erakutsi zuten parte-hartzaile guztiek. Amaieran, maila bakoitzeko bikote txapeldunari 200 euro eta garaikurra eman zioten. Eskola arteko lehiaketa amaitu eta, jarraian, Bacalaos Alkorta pintxo lehiaketaren *showcooking*-a edo erakustaldi finala hasi zen. Ermua, Eibar, Elgoibar, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako pintxo lehiaketetako irabazleek hartu zuten parte, eta Errebal Plazan zegoen jendearen aurrean prestatu zituzten pintxo finalistak, Mireia Alonso sukaldariak gidatu zuen ekitaldian. Epai-mahaiarentzat ez zen erraza izan txapeldunen arteko txapeldunak aukeratzea, baina azkenean Arabako ordezkariak, Borda Berri erretegiko Mitxel Suarezek, eskuratu zuen Txapeldunen Txapelduna saria, *Black is Beltza* izeneko pintxoarekin. Horrekin batera, Ermuko Kiskako Julen Perezen pintxoari aipamen berezia egin zioten, eta berak eraman zuen Debarreneneko sari berezia.

Jateko kontuak albo batera lagata, gaur izango da ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako XXVIII. Bertso Jaialdia, 20:00etan Coliseo antzokian. Amets Arzallus, Jone Uria, Alaia Martin, Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu eta Maialen Lujanbio bertsolariek hartuko dute parte, eta gai-jartzailea Jon Mikel Mujika izango da. Aurretik, San Andres Bertso-Paper



Hitzordu bikoitza hartu zuen Errebal Plazak aurreko zapatuan: Eibarko DBH-ko ikasleek goizaren lehen zatia bakailaoa prestatzen eman zuten, eta ondoren Bacalaos Alkorta pintxo lehiaketako finala jokatu zuten Ermua, Eibar, Elgoibar, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako pintxo lehiaketetako irabazleek, Txapeldunen Txapelduna saria erabakitzeko. ARGAZKIAK: EIBARKO UDALA.

Lehiaketako irabazleei sariak banatuko dizkiete, eta bertan abestuko dituzte lehiaketan saritutako bertsoak. Sarrerak 8 euro balio du, eta bertso-saioaren aurretik erosi ahalko da, leihatilan.

Alberto Lasuen Arriaga eta Eibarko Klub Deportiboa omenduko ditu Eibarko Txirrindulari Elkarteak bihar ospatuko den Txistorra Egunean

Bihar, berriz, XX. Txistorra Eguna ospatuko da, Eibarko Txirrindulari Elkartearen eskutik. Urteroko martxan, Untzagako karpan izango da egun osoa beteko duen jai. Txotxa 11:30etan zabalduko dute aurtengo omenduek: Alberto Lasuen Arriaga Txirrindulari Elkartearen betiko laguntzaileak, eta Eibarko Klub Deportiboak, bere mendeurrenean. Horrekin batera hasiko dira txistorra pintxoak saltzen. Bazkaldu eta atsedean pixka bat hartzeko, 15:00etatik 18:30era etena egingo dute. Eta jaiaren amaieran, 21:00etan, egun osoan salgai egongo diren rifen zozketa egingo dute. Sari ugari banatuko dituzte: sari berezia, bost Tarteko-helmuga sari, eta beste hogeitazazpi sari gehiago (BH bizikleta, kamisetak, maillotak, futbola eta pilota ikustera joateko sarrerak, opari-sortak...).

Gaur 20:00etan hasiko da ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako San Andres Bertso Jaialdia, Coliseon

Argazki gehiago elkartearen webgunean:





Ana Goitiaren bakarrizketak zabalduko du eguenean Euskararen Hamabostaldia

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu abenduaren 3an eta, horren harira, hainbat ekintza prestatu dituzte Eibarko Udalak eta herriko eragileek, tartean ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Egitaraua datorren astean, azaroaren 28an hasiko da, Ana Goitiaren *Katana* bakarrizketarekin. Saioa Eibarko Klub Deportivoan izango da, 18:30ean (sarrera doan, aforo mugatuarekin).

Abenduaren 3rako egun osoko egitaraua prestatu dute. Goizean mintzodromoa egingo da Untzaga plazan, ikastetxeen parte-hartzearekin. Eta arratsaldean, berriz, 18:00etan helduentzako mintzodromoa egingo da, herritar guztientzat zabalik. Jarraian, 19:00etan, Eibarko Euskalgintzaren eskutik *Ixotu euskeria! Argixa ez dadila emetau!* ekintza egingo da (norberak bere linterna eramane beharko du).

Eibarko nokara gerturatzeko saioa

Abenduaren 11rako 'Euskalgintza eta feminismoa' izenburuko hitzaldia antolatu du Andretxeak. Euskalgintzaren eta feminismoaren arteko gurutzaketa eta aliantzarako bidea arakatzeko dituen *Trikua esnatu da* liburua izango du oinarri hitzaldiak, eta hizlariak Lorea Agirre Dorronsoro eta Idurre Eskisabel Larrañaga izango dira. Eta abenduaren 12an (eguna), noka ikastaroa egingo da Andretxean: "Hitanoz ari garenean neskei "noka" egiten diegu, eta bi orduko ikastaro labor honetan Eibarko nokara gerturatu gara". Irakaslea Badihardugu euskara elkartearen Aintzane Agirrebeña izango da, eta parte hartzeko aurretik izena eman beharko da nahitaez, <https://labur.eus/NokaIkastaroa> estekaren bitartez.



Erlaxatzeko teknikak lantzeko tailerrarekin pozik

Ederto erlaxatu ziren Begoña Ogiza adituak martitzen eskaini zuten *Saama 3.0* terapia-saioan parte hartu zutenek. ...eta kitto! Euskara Elkartearen *Ilunabarrian* egitasmoaren baitan egin zen tailerrean, besteak beste, barne-blokeo emozionalak askatzeko tekniketan murgildu ziren parte-hartzaileak. Antolatzaileen berbetan, "kuenko tibetarrak sonoterapiaren erabiltzen dira, erlaxazioa, meditazioa eta ongizatea sustatzeko. Bi teknika horiek kontzientzia eta energia lantzeko helburua dute, pertsonaren maila guztietan (fisikoa, mentala, emozionala eta espiritual) eraginez".



Musika emanaldiak antolatu ditu JHH-k Sanandresetarako

Jaixak Herrixak Herrixandako herri-plataformak egitaraua musikala prestatu du San Andres egunerako: 19:30ean DJ Galtzagorriekin karropoteoa egingo dute, 21:30ean Zatekeen taldeak erromeria eskainiko du, eta 23:30ean kontzertua hasiko da, Ganibet taldearekin. Kontzertuak Untzagako karpan izango dira, eta barra-zerbitzua egongo da. JHH-k baserritar jantzita irteteko dei egin du, edozein erasoren aurrean auto-defentsa feministaz erantzungo dutela gaineratuta.



Domekan inauguratuko da Exfibar seilu erakusketa

Domeka eguerdian, 12:00etan inauguratuko dute Arrate Filatelia Elkarteak antolatutako Exfibar 2024 LV. seilu erakusketa, Portalean. Aurten *Filatelia eta antzerkia* hautatu dute gai nagusi gisa, eta erakusketa-aren harira argitaratu duten katalogoa Eibarko Antzerki Jardunaldiei buruzkoa da. Abenduaren 1era bitartean ikusgai egongo den erakusketa prestatzarekin batera, aurtengo gaiari eskainitako posta-marka sortu dute oraingoan ere, eta filatelia-zaleek inaugurazio egunean izango dute hori eskuratzeko aukera, 10:30etik 13:30era, erakusketa aretoan bertan. Erakusketa honen ordutegi berezia izango duela azpimarratu dute antolatzaileek: astelehenetik barixakura 18:00etik 20:00etara zabalduko dute, eta asteburuetan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara. Azaroaren 30ean itxita egongo da.



Emeka rap abeslarien lan berria kalean dago gaurtik

Urtebetez lanean aritu eta gero, Emeka eibartarrak *Llenito de vacío* lana kaleratuko du gaur bertan. Sei abestik osatzen dute lan berria: *Tú ya no estás*, *¿Por qué no?*, *Volver*, *Llenito de vacío*, *Centrándome en mí* eta *Puro*. Lana plataforma digitaletan entzun daiteke.



Hilaren 27an aurkeztuko du Kokein taldeak disko berria

Aurten 25 urte bete dituen Kokein talde eibartarrak *Bidea da helmuga* izenburuko diskoa aurkeztuko du eguaztenean. Plataforma digitaletan entzun ahalko da, eta Durangoko Azokan abenduaren 5ean jarriko dute salgai formatu fisikoan. Lan berriak 10 abesti izango ditu, eta dagoeneko kaleratu dute bat, bideoklip eta guzti. Abestietan erdiak berriak izango dira, eta beste bostak lagunek egindako bertasioak. Horien artean Miren Narbaiza eta Maite Arroitauregi 'Mursego' eibartarrek egindakoak daude.

Verdiren "Don Carlo" operaren proiektzioa bihar Coliseon

Bihar eskainiko dute *Don Carlo* Giuseppe Verdiren opera entzutetsua, 19:45ean Coliseon. 2023an Austriako Klosterneuburg hiriko abadian grabatutako lanak bi ordu eta 40 minutuko iraupena du. Christoph Campestrini da musika zuzendaria, eta Günther Groissböck eszenakoa. Ekitaldian Beethovenen Filarmonikak eta Operklosterneuburg-eko Abesbatzak hartzen dute parte. Proiektziorako sarrerak 9 euro balio du (5,5 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin).

Istorio laburrak txotxongiloekin

Titiritai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko lana aurkeztuko du bihar Frantziako L'aligne taldeak, hitzik egin gabe, baina kontrabaxu eta baxuaren zuzeneko musika-rekin lagunduta. Hiru istorio izango dira, bakoitza 15 minutukoa. Coliseon izango da ikuskizuna, 17:00etan, eta sarrerak 5 euro balio du.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

7		4		1	2	
2	6		7			3
			5		7	8
				8	9	
8			7			5
	1	4				
4	2		6			
9		2		3		4
	6	1		4		9

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z																													
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55

soluzioa

S U D O K U

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	8		4		7	
	5				4	6
		7	8		9	3
		1	5			
	2			9		5
				8	6	
1	8			2	3	
9	3					6
	6		7			1

soluzioa

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z																													
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55

Zatika emandako erantzunak osatu ahala, eraman itzazu letra zenbakidunak beheko taulara -adibidean bezalata Paskual Iturriagaren alegi baten zatia aurkituko duzu.

Arroka	1	A	2	3	4	A
Jipoiu	E	5	6	R	7	U
Belarri-luze txikia	U	N	T	8	9	A
Harrera	A	10	11	12	13	A
Zauri gaiztotuari dario	Z	14	R	15	E	16
Familiako	A	17	18	I	D	E
Urria eta berendiaren laguna	S	A	19	20	21	22
Toreroaren etsaia	23	E	Z	24	25	A
Basa-behi	B	E	26	I	27	28
Zahagi txikia	Z	29	30	A	T	31

Eskoba hegalariaen jabe	S	O	32	G	33	N		
Zikoitza, esku-eutsia	Z	E	34	K	E	35	N	A
Toki batetik bestera aldatu	M	U	37	38	39	U		
Ehun urtekoa	M	40	41	42	E	A		
Mahats-zuku irakin gabear	M	43	Z	44	I	O		
Salmentako partaide	B	45	Z	E	R	46		
Hondakin	H	O	47	D	48	R		
Aintzira txikia	U	R	49	A	50	L		
Adar-gai	A	51	A	R	K	52		
Diru-etxea	B	A	N	53	54	55		

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29				
30	31	32	33	E	K	36	E	37	38	39	40	41	42	43	44	45
46	47	48	49	50	51	52	53	54	55							

Azaroak 22 / 28

BARIXAKUA 22

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Doan. Urkizu.

SANTA ZEILIA

17:00/19:00 Eibarko Udal Musika Eskolako kalejira, Ustekabe txarangarekin.

ANTZERKI-SOLASALDIA

18:30 "El nombre", emakumeen kontrako indarkerien ingurukoa, Pagatzaren eskutik. Solasaldia artistarekin. Doan. Portalea.

INDARKERIA

MATXISTAREN KONTRA

18:30 "Una bofetada no es nada", Ttipia konpainiaren eskutik. Doan. Andretxea.



SANTA ZEILIA

19:30/21:00 Usartza Txistulari Taldearen kalejira, Eibarko Musika Eskolako txistu eta tronpeta ikasleen parte-hartzearekin. Urkizutik hasita, herriko kaleetan zehar.

BERTSO JAIALDIA

20:00 San Andres bertso jaialdia. Bertsolariak: Amets Arzallus, Jone Uria, Alaia Martin, Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu eta Maialen Lujanbio. Gai-jartzailea: Jon Mikel Mujika. 8 euro. Coliseo.

ZAPATUA 23

ZUHAITZ-LANDAKETA

09:30 Eibarko Baso Biziak taldeak eta Lurgaiak antolatuta. Kaminburu inguruan. Unbetik, goiko futbol zelaiaren aldamenean elkartu eta bertatik abiatuko dira.

TXISTORRA EGUNA

11:30/21:00 Eibarko Txirindulari Elkartearen XX. Txistorra Eguna. Pintxoak, edariak, musika, zozketa... Untzaga plaza.

OMENALDIA

12:30 Aurtin 85 eta 100 urte betetzen dituzten Untzaga gizarte etxeko bazkideen omenezko eguna. Meza San Pio elizan, eta bazkaria, opari banaketarekin.

TITIRIJAI

17:00 "Zakua", "Sisifo txikia" eta "Edipo" istorio laburrak, L'aleina (Frantzia) konpainiaren eskutik. Txotxongilo-antzerkia. 5 euro. Coliseo antzokia.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzan dabilzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

OPERA

19:45 "Don Carlo" (Giuseppe Verdi) operaren proiektzioa. Austriako Klosterneuburg hiriko abadian grabatutako lana. 9 euro (5,50 euro). Coliseo.

SANTA ZEILIA

23:59 Santa Zeilieren omenezko serenata. Eibarko Musika Bandaren kantu-kalejira. Untzagan hasita.

DOMEKA 24

TXAPELKETA

11:30 XXX. Bakailao txapelketa San Andres saria. 42 bikote. Untzaga.

TXAPELKETA

12:00 Zurrurutuna txapelketa. Untzaga gizarte etxea.

MANIFESTAZIOA

12:00 "Stop genozidioa Palestina eta Libanon". Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek deituta. Untzaga.

INAUGURAZIOA

12:00 Arrate Filatelia Elkartearen "Exfibar 2024 - LV. Seilu erakusketa" zabaltea. Posta-marka 10:30etik 13:30era ipiniko dute. Portalea.

SANTA ZEILIA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Doan, gonbidapenarekin. Coliseo antzokia.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzan dabilzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 25

INDARKERIA

MATXISTAREN KONTRA

11:30 Ekintza kolektiboa: Indarkeria matxisten aurka matzak ehuntzen. Altzoa Eibarko emakume alargunen elkartearen eskutik.

18:30 Elkarretaratzea: "Indarkeria matxistaren aurrean, ardura-hartze kolektiboa". Untzaga.

PRESTAKUNTZA HITZALDIA

16:00 "Liburutegiko liburu elektronikoak deskargatzeko modua". Untzaga gizarte etxea.

MARTITZENA 26

AUZO-BILERA

19:00 Udal arduradunak, erdialdean bizi direnekin. Untzaga gizarte etxea.

ERAKUSKETAK

Azaroaren 29ra arte:

- "LUMINESZENTEA". (Andretxea)

Azaroaren 30era arte:

- **MARCEL VAN BALKEN-en** argazkiak. (Deporreko taberna)
- **VIRGINIA ARAKISTAIN-en** argazkiak. (Portalea taberna)

Azaroaren 24tik abenduaren 1era:

- "EXFIBAR 2024 - LV. Seilu erakusketa", Arrate Filatelia Elkartearen eskutik. (Portalea)

Eskualdeko Agenda

SORALUZE

BLUES HOTSAK JAIALDIA
- 22an (BARIXAKUA)

J.B. Bimenni

20:00 Herriko Antzokia

- 23an (ZAPATUA)

Santiago Auserón

19:00 Herriko Antzokia

- 24an (DOMEKA)

Sugar Queen

19:00 Herriko Antzokia

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **23an: 22:30** (2 Aretoa)
- **24an: 20:00**
- **25ean: 19:30**

“Azken erromantikoak”
DRAMA



2024/Espainia/102'
Zuzendaria: David P. Sañudo
Protagonista: Miren Gaztañaga,
Maika Barroso, Eric Probanza
Komedia/Emakume bakartia

2 ARETOA

- **23an: 19:30, 22:30** (1. Aretoa)
- **24an: 17:00, 20:00**
- **25ean: 19:30**

“Anora”
KOMEDIA



2024/AEB/138'
Zuzendaria: Sean Baker
Protagonista: Mikey Madison,
Mark Eydelshteyn, Yuriy Borisov
Prostituzioa/Drama

ANTZOKIA

- **23an: 17:00, 19:45** (2 Aretoa)
- **24an: 17:00** (1. Aretoa), **20:00**
- **25ean: 19:30**

“Jurado número 2”
DRAMA



2024/AEB/114'
Zuzendaria: Clint Eastwood
Aktoreak: Nicholas Hoult,
Toni Collette, Kiefer Sutherland
Thriller-a/Intriga/Epaiketa

ANTZOKIA

- **23an: 17:00** (1. Aretoa)
- **24an: 17:00**

“Guardianes en la Opera”
ANIMAZIOA



2023/Errusia/75'
Zuzendaria: Vasily Rovenskiy
**Animaliak/Komedia/
Familiar ikusteko**

leku berri bat Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna

egunero elkarrekin egoteko

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI
Grupua Antzokio

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO EIBAR

TANATORIO ERREATORIO
ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otxola, 27
Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Diasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdepinna, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **JULEN!!**
Hillaren 16xan
3 urte bete
zenduaz eta!! Ja-
rraittu horren alai!
Musu haundi bat
etxekuen partez.



Zorionak, **JOSEAN,**
bixar zure eguna
izango da eta. Segi
holan, Eibarko jairik
onenak antolatzen.
Horregaittik zagoz
hain gazte!



Zorionak, **AMETS!!**
Bixar 7 urte beteko
dozuz eta.
Txistorraren
egunian famelixan
ospatuko dogu.
Patxo morduak.



Zorionak, **NILE eta JULE,**
hillaren 19xan urtetxua bete
zenduezen eta. Musu haundi
bat famelixaren eta, batez be,
zuen ahizta Mareren partez.

Andres Zuloaga Ulanga "Kaxan"

2024/11/20

Txorien abestiekin
alaitutako egun ederrak
bizi izan genduzan alkarrekin.
Milaplosen hartzen gintuan
gozo, **KAXAN** lagun maite
eskuzabala, inguruko guztion
ANDRES estimatua.

*A zer kolpe latza jaso duguna!
Egik hegan aske, betiko haiz
gure bihotzetan iltzatuta.*

- KAIXOAK -

Marian Abascal Ruiz

7. URTEURRENA
2017/11/21

Zure irribarre
eta samurtasuna
GURE ARTEAN
jarraitzen dute
BETIRAKO.

- ETXEXOAK -

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.3. Konpartitzeko

- Pisukide baten bila nabil Eibarren. enorahenriquezsistia-ga@gmail.com

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Tailer mekanizatua salgai. 667895597.
- Lokal zentrikoa salgai. 25 metro karratu. 688686786.

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Urkizun. 35 metro karratu. Komuna, ura eta argiarekin. 685758326.
- Garajea alokagai San Juan kalean. 639643600.
- Lokala alokagai Urkizun. Gazteentzako aproposa. Baimenarekin. 600776887.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta garbiketarako egiteko. 638413158.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka edo interna. 639107272.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. 649623854.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita gauze ere. Orduka. 631425686.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 631907532.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642044618.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 635944602.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 604205271.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 613215006.

- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko. Osasun ziurtagiriarekin. 642855788.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. 632844780.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. 632768653.

- Erizaina eskaintzen da edozein lanetarako. 642437753.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. 631489919.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. 631489919.

4.2. Langile bila

- Ileapaindegirako laguntzailea behar da. Jornada erdirako. 619928881.

- Administraria behar da astean zehar 8 ordu egiteko Elgoibarko enpresa batean. Bidali curriculum-a: info@emaergonomia.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Albeito.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Korrika egiteko zinta salgai. Ia berria. 671258740.
- Labe txiki elektrikoa (Teka) salgai. Ia berria. Prezioa adosteko. 671506728. Valentin.
- Jatorrizko Trispace lo-zakua (Serval) salgai. Prezioa adosteko. 631849563. Gorka.

6.2. Eman

- Sofa oparitzen dut, egoera onean. Tel 672428273.
- Arrazoi pertsonalak tarteko, katu helduak arduraz adoptatzeko aukera eskaintzen dut. 688852207.

Neinor HOMES

ARRATE HOMES · EIBAR

Etxea hemen
aukeratzen baduzu, oparia
aukeratzen duzu



Jai hauetan gure **GABONETAKO SASKIKO***
bi opari hauen artean aukera dezakezu
zure **ARRATE HOMES** etxea erosita.

* Kontsumitzaile lege-arrazoak

1

EL CORTE INGLÉS
opari-txartela



2

IKEA
opari-txartela



AUKERATU ZURE OPARIA

Aprobetxatu aukera paregabe hau Eibarko bihotzean
obra berriko etxe batean bizitzeko.

Garajea | Gimnasioa | Gourmet aretoa

900 11 00 22 · neinorhomes.com

**GABONETAKO
BIGARREN ESKUKO
AZOKA**

14
ABENDUA
2024

EIBAR
8

Egunero erosten
dauden erabilgarriak
objektuak berri eta
erabiltu, bizi-bordekin
gutxiago sartzen
bertan dugu.



ERREBAL PLAZIA

(10:00etatik 14:00etara)

Erreserbatu mahai bat, behar ez dituzun gauzak saltzeko;
haien bizi-irupena luzatuko duzu honela.

Eibarko elkarte, ikastetxe eta heritar gutxiak har dezakete parte.

BI AUKERA:

1. **Erreserbatu salmenta-postu bat** (mahai bat)
eta zerorrek saldu erabilgarriko zeure gauzak.
2. **Gordailu-salmentan** utzi zure objektuak (10 gehienez)
eta antolakuntza-talderoak arduratuko dira salmentaz.
Ezin dira eraman: arropa eta osagaiak, bolumen handiko altzariak...
Egunean bertan eraman gauzak 09:00etatik 10:00etara.
Oinarri: aukera batean zera bestean parte hartzeko, nahitazkoa da
aurrez erreserba egitea eta adin nagusiko izatea. Hizordua emango da.

IZENA EMATEKO EPEA

Azaroaren 27tik abenduaren 11ra (biak barne)

TAILERRA

Egin Gabonetako apaingarriak material birziklatuekin
11:30 – 14:00, Errebal Plaza. **DOAN**
BI TAILER: 3-6 urteko haurrek (helcu batekin) eta 7 urteko aurrerakoak.
Iraupena 25 min. Bost banda aukeran, 11:30etik 13:30era. Plaza mugatuak.
Hartu zure txanda egun berean!



IZEN-EMATEAK ETA
INFORMAZIO GEHAGO:
www.merkabi.eus/eibar
tel. 943 670 249



Bizi berri baten bila?

Zatoz Errekatxu Berri Bizigunera



AZKEN ETXEBIZITZA, GARAJE ETA LOKALAK
ESKURAGARRI EIBARKO ERDIGUNEAN

BISITA EZAZU GURE PISU PILOTU BERRIA

3 logelako etxebizitzak: 285.000€tik aurrera



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir